La Comisión Técnica de Acoso, excepcionalmente, podrá valorar si acepta denuncias presentadas por escrito y debidamente razonadas, fuera de plazo.

4. *Información incompleta*

Si el escrito estuviera incompleto, la presidencia de la Comisión Técnica de Acoso dará un plazo máximo de tres días para su correcta cumplimentación. De no subsanarse, se procederá al archivo, por defecto de forma.

5. *Convocatoria de la Comisión Técnica de Acoso*

La Presidencia de la Comisión Técnica de Acoso deberá convocar a los miembros de la comisión en un plazo máximo de tres días desde la presentación del escrito.

6. *Trámites e indagaciones iniciales*

La Comisión Técnica de Acoso podrá realizar cuantas indagaciones considere necesarias sobre los hechos objeto de denuncia, pudiendo entrevistar a quien ha presentado la denuncia, y a cualquiera de las partes afectadas y recabar la información y documentación que considere oportuna.

7. *Adopción de decisión sobre denuncia de acoso*

1. Realizados los trámites e indagaciones iniciales, la Comisión Técnica de Acoso, en el plazo máximo de cinco días a

Deustuko Unibertsitateko webean egongo da eskuratzeko moduan.

Egitateak ahoz salatuz gero, berrespen idatzia aurkeztu beharko da gero. Idazkia paperean edo bide elektronikotik bidalita aurkez daiteke. Bide elektronikotik aurkeztuz gero, salatzaileak sinatu egin beharko du gero, prozedura ofizioz hasi ez bada.

Ez da idazki anonimorik onartuko.

Idazkia ustez iraindua izan den pertsonak aurkeztu ez badu, ustezko irainduari salaketa berresteko eskatuko zaio prozedurari ekiteko.

Idazkia berresten ez badu, Jazarpen Batzorde Teknikoak ofizioz has dezake prozedura horretarako arrazoiak daudela iritziz gero.

2. *Organo hartzailea*

Idazkia Jazarpen Batzorde Teknikoari zuzenduko zaio. Posta elektronikoz bidaliko da horretarako jartzen den helbidera edo posta arruntez helbide honetara: Jazarpen Batzorde Teknikoa, Unibertsitate etorbidea 24, 48007 Bilbao / Mundaiz 50, 20012 Donostia/San Sebastián.

Bestela, eskura eman dakioke Jazarpen Batzorde Teknikoko buruari. Horretarako, I. eranskineko eredua erabil daiteke.

Batzordeak Batzorde Teknikoko kide guztiei helarazio die dokumentazio guztia hogeita lau orduko epean gehienez.

3. *Aurkezteko epea*

Protokolo honetan ezarritako prozedura ezin izango da aplikatu salatu nahi den egitatetik behin sei hilabete igarota. Jokabidea jarraitua bada, pertsonak jokabide hori jasan zuen azken egunetik zenbatuko da epea.

Ustezko jazarpena jaso duen pertsona medikuaren bajan badago edo beste arrazoi justifikaturen bat dela eta unibertsitatean ez badago, epea medikuaren alta jasotzen duen egunean edo Deustuko Unibertsitatera itzultzen den egunean hasiko da zenbatzen.

Jazarpen Batzorde Teknikoak, salbuespen gisa, baloratu lezake idatziz eta behar bezala arrazoiturik baina epez kanpo aurkeztutako salaketak onartu ala ez.

4. *Informazio ez osoa*

Idazkiak informazio guztia ez badu, Jazarpen Batzorde Teknikoko buruak hiru eguneko epea emango du osatzeko. Idazkia osatzen ez bada, artxibatu egingo da, formazko akatsak direla eta.

5. *Jazarpen Batzorde Teknikoaren deia*

Jazarpen Batzorde Teknikoko buruak batzordekideak deituko ditu idazkia aurkeztu eta hiru egunera beranduen dela.

6. *Lehenengo izapide eta ikerketak*

Jazarpen Batzorde Teknikoak beharrezko deritzen ikerketak egin ahal izango ditu salatutako egitateak argitzeko. Horretarako, salaketa aurkeztu duen pertsona eta tartean den beste edonor elkarrizketatu ahal izango du, eta beharrezko deritzon informazioa eta dokumentazioa eskatu ahal izango du.

7. *Jazarpen salaketari buruzko ebazpena*

1. Hasierako izapideak eta ikerketak egin ondoren, Jazarpen Batzorde Teknikoak, lehenengoz bildu eta bost eguneko

contar desde la primera reunión en que fue convocada, deberá adoptar una resolución motivada:

a) Proponer la apertura de segunda fase del procedimiento por entender que hay indicios de que los hechos pueden ser constitutivos de acoso, o bien se está ante la presencia de conductas inapropiadas o, conflicto interpersonal. También continuará el procedimiento si se detectara que están involucradas personas ajenas a la Universidad de Deusto, conforme al artículo 3.
b) Archivo de la denuncia por:
   a. Por ausencia de indicios que permitan continuar con el procedimiento.
   b. Por desistimiento de la persona denunciante, salvo que de oficio la Comisión Técnica de Acoso decida continuar con el procedimiento y proceder a la apertura de la segunda fase.
c) Derivar el conflicto a Vicedecanato de Estudiantes de la Facultad correspondiente

2. Se adoptarán, si procede, las medidas cautelares y se comunicarán al Servicio de Prevención Propio de la Universidad.

8. *Comunicación de la decisión adoptada*

Se notificará a las partes afectadas, las cuales tendrán derecho de acceso al material existente en relación con el proceso una vez que éste se inicie.

**Artículo 11.** Segunda fase: Instrucción del procedimiento

La segunda fase comprenderá las tareas de instrucción o investigación que serán llevadas a cabo por las dos personas representantes del PDI, PI o PAS nombrados por el Rector de la Universidad de Deusto que, según el artículo 17.a, pertenecen a la Comisión Técnica de Acoso. El Vicerrector competente en la materia de estudiantes determinará quién ejerce de instructor y quién de secretario de procedimiento.

1. *Instrucción del procedimiento*

Esta fase comenzará informando a la persona denunciada de los hechos objeto de denuncia y se le solicitará que presente alegaciones por escrito en un plazo de siete días con los elementos de prueba que considere oportunos.

La Comisión Técnica de Acoso continuará reuniendo la información y documentación necesaria para tener conocimiento cabal de los hechos, pudiendo practicar cuantas pruebas considere pertinentes, en concreto:

1.º Tomará declaración a las partes. Deberá hacerse de forma separada evitando el contacto entre ambas y procurando el máximo respeto y confidencialidad. Las partes podrán actuar mediante representante en esta actuación.
2.º Tomará declaración a cualquier otro miembro de la comunidad universitaria.
3.º Recabará la documentación en papel o electrónica relativa a los hechos discutidos.
Todos los miembros de la comunidad universitaria están obligados a colaborar con la investigación que realice la Comisión Técnica de Acoso.
4.º Podrá solicitar dictámenes de expertos de la comunidad universitaria de la Universidad de Deusto.
5.º Si se considera necesario, se podrá realizar consulta a un especialista o experto para dicha acotación. La consulta podrá realizarse a petición de un miembro de la Comisión Técnica de Acoso, con el acuerdo y consentimiento del resto. En el traslado de consulta se observarán escrupulosamente los derechos de intimidad y confidencialidad.

epean gehienez, ebazpen arrazoitua hartu beharko du:

a) Prozeduraren bigarren fasea irekitzea, badirelako zantzuak pentsatzeko egitateak jazarpena izan daitezkeela, edo jokabide desegokiak gertatu direlako edo pertsonen arteko gatazka dagoelako. Prozedurarekin jarraituko du, halaber, Deustuko Unibertsitatetik kanpoko pertsonak tartean badira, 3. artikuluaren arabera.

b) Salaketa artxibatzea:
   a. Prozedurarekin jarraitzeko zantzurik ez dagoelako.
   b. Salatzaileak atzera egin duelako. Dena dela, Jazarpen Batzorde Teknikoak prozedurarekin ofizioz jarraitzea erabaki dezake eta bigarren faseari ekin.

c) Gatazka dagokion fakultateko Ikasleen Dekanordetzara bideratzea.

2. Behar izanez gero, kautelazko neurriak hartuko dira eta Unibertsitateko Prebentzio Zerbitzuari jakinaraziko zaizkio.

8. *Hartutako erabakiaren berri ematea*

Tartean diren alderdiei ebazpenaren berri emango zaie eta prozesuko materialak eskuratzeko eskubidea izango dute behin prozesua hasita.

**11. artikulua.** Bigarren fasea: Prozeduraren instrukzioa

Bigarren fasean, instrukzioa edo ikerketa egingo dute Deustuko Unibertsitateko Errektoreak 17.a artikuluaren arabera Jazarpen Batzorde Teknikoko kide izateko izendatutako IIP, IP edo AZPen bi ordezkariek. Ikasle gaietan eskuduna den errektoreordeak erabakiko du nor izango den prozeduraren instruktorea eta nor idazkaria.

1. *Prozeduraren instrukzioa*

Fase honen hasieran, salatuari salaketako egitateen berri emango zaio eta zazpi eguneko epea emango zaio alegazioak aurkezteko, idatziz eta egoki deritzen frogak erantsita.

Jazarpen Batzorde Teknikoak informazioa eta dokumentazioa biltzen jarraituko du, egitateen ezaguera zehatza izateko. Horretarako, egoki deritzen probak egin ditzake, hala nola:

1. Deklarazioa hartuko die alderdiei. Zeini bere aldetik hartuko die, bien arteko kontaktua saihestuz eta errespetua eta konfidentzialtasuna gordez. Alderdiek ordezkari baten bidez jardun dezakete.
2. Unibertsitateko elkarteko beste edozein kideri har diezaioke deklarazioa.
3. Egitateei buruzko dokumentazioa bilduko du, paperean zein formatu elektronikoan.
Unibertsitateko elkarteko kide guztiek lagundu behar dute Jazarpen Batzorde Teknikoak egiten duen ikerketan.
4. Deustuko Unibertsitateko elkarteko adituen irizpenak eska ditzake.
5. Beharrezko iritziz gero, arloko espezialista edo aditu bati egin diezaioke kontsulta. Kontsulta egiteko Jazarpen Batzorde Teknikoko kide batek eskatu beharko du eta gainerakoek ados egon beharko dute. Kontsulta egitean zorrotz babestuko dira intimitaterako eta konfidentzialtasunerako eskubideak.

6.º Acordar cualquier otra prueba admitida en Derecho a los efectos de alcanzar la verdad de lo sucedido.

Según lo previsto en el artículo 13 de la Ley Orgánica 3/2007, en las situaciones de acoso sexual y acoso por razón de sexo, de acuerdo con las alegaciones realizadas por la parte denunciante, corresponderá a la parte denunciada probar la ausencia de discriminación en su actuación y la proporcionalidad de sus actos. Compete no obstante a la parte denunciante la aportación de los indicios de los que se desprenda la conducta objeto de denuncia.

2. *Conclusión de la instrucción*

Se documentarán las pruebas practicadas y, una vez realizado el examen completo de los hechos y argumentos esgrimidos durante el procedimiento, la Comisión Técnica de Acoso pondrá fin a la segunda fase del procedimiento en el plazo máximo de catorce días desde el inicio de la instrucción.

**Artículo 12.** Tercera fase: Resolución del procedimiento

1. *Contenido del Informe de conclusiones de la Comisión Técnica de Acoso*

1. La Comisión Técnica de Acoso tiene obligación de emitir un informe de conclusiones en el plazo máximo de tres días, una vez concluida la fase de instrucción. El informe de conclusiones deberá contener:

a) Antecedentes del caso, denuncia y circunstancias de la misma.
b) Actuaciones previas: Valoración inicial del caso.
c) Medidas cautelares, si se han acordado a lo largo del procedimiento.
d) Resumen de pruebas practicadas.
e) Hechos que se consideren probados.
f) Valoración sobre la concurrencia de acoso y su calificación como tipo de acoso de conformidad con el art. 2.
g) Propuestas de solución y medidas correctivas/preventivas que recomienda sean implantadas/ejecutadas por la universidad.
h) Recomendaciones adicionales, en su caso, que considere oportunas.
i) Indicación de si las decisiones se han adoptado por unanimidad o si ha habido discrepancia.

El informe de conclusiones se notificará, de inmediato, a los interesados, concediéndoles un plazo de 8 días hábiles para formular alegaciones.

2. Finalizada la audiencia a los interesados, el informe deberá ser remitido al Vicerrector competente en relación con alumnado para que adopte obligatoriamente, en el plazo máximo de ocho días, una resolución al respecto que deberá ser motivada, tanto si aceptase la propuesta de la Comisión como si no lo hiciese.

2. *Propuesta de apertura de expediente disciplinario*

La Comisión Técnica de Acoso propondrá la apertura de expediente disciplinario si concurren actuaciones de mala fe, denuncias infundadas o falsas por parte de cualquiera de las personas implicadas o bien de cualquier miembro de la comunidad universitaria, dándose traslado a la autoridad u órgano competente para adopción de la decisión correspondiente o la incoación de expediente disciplinario.

3. *Restitución de las condiciones*

Si el acoso hubiera supuesto un menoscabo de las condiciones académicas de la persona perjudicada, la Comisión Técnica de Acoso podrá proponer las medidas necesarias para que se le restituya en las condiciones previas a los hechos denunciados dentro de las posibilidades organizativas.

6. Zuzenbideak onartzen dituen beste edonolako probak egitea erabaki dezake, egia ezagutzeko.

3/2007 Lege Organikoaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, salatzailearen alegazioak sexu jazarpenean eta sexuagatiko jazarpenean oinarritzen direnean, salatuak frogatu beharko du bere jokabideak bereizkeriarik gabekoak eta proportzionalak direla. Haatik, salatzaileari dagokio salatu duen jokabidearen zantzuak aurkeztea.

2. *Instrukzioaren amaiera*

Frogak dokumentatu eta, behin egitateak eta prozeduran azaldutako argudioak ondo aztertuta, Jazarpen Batzorde Teknikoak amaitutzat emango du prozeduraren bigarren fasea, instrukzioa hasi eta hamalau eguneko epean gehienez.

**12. artikulua.** Hirugarren fasea: Prozeduraren ebazpena

1. *Jazarpen Batzorde Teknikoaren Ondorioen txostenaren edukia*

1. Jazarpen Batzorde Teknikoak ondorioen txostena egin behar du instrukzio fasea amaitu eta hiru eguneko epean gehienez. Ondorioen txostenak eduki hauek jaso beharko ditu:

a) Kasuaren aurrekariak, salaketa eta salaketaren inguruabarrak.
b) Aurretiazko jarduketak: kasuaren lehenengo balorazioa.
c) Kautelazko neurriak, halakorik erabaki bada prozeduran zehar.
d) Egindako proben laburpena.
e) Frogatutzat ematen diren egitateak.
f) Egitateetan jazarpenik izan den baloratzea eta, hala bada, jazarpen mota zehaztea 2. artikuluaren arabera.
g) Konponbiderako proposamenak eta unibertsitateak arazoa zuzentzeko/prebenitzeko har litzakeen neurriak.
h) Egoki iritziz gero, beste gomendio batzuk.
i) Erabakiak aho batez hartu diren ala desadostasunik egon den.

Ondorioen txostena berehala bidaliko zaie interesdunei eta 8 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

2. Interesdunei entzun ondoren, txostena ikasleen gaietan eskuduna den erretoreordeari igorriko zaio, zortzi eguneko epean gehienez ebatzi dezan. Ebazpenak motibatua izan behar du, Batzordearen proposamena onartu zein ez.

2. *Diziplina espedientea hasteko proposamena*

Jazarpen Batzorde Teknikoak, baldin eta tartean direnek edo unibertsitateko elkarteko edozein kidek fede gaiztoko jokabiderik edo salaketa funsgabe edo faltsurik egin badu, diziplina espedientea hastea proposatuko du eta proposamen hori agintari edo organo eskudunari helaraziko dio, erabakia har dezan.

3. *Lehengo baldintzetara itzultzea*

Jazarpenak jazarpena jasan duenari kalte egin badio baldintza akademikoetan, Jazarpen Batzorde Teknikoak behar diren neurriak proposatu ditzake pertsona horri salatutako egitateak baino lehenago zituen baldintzak itzultzeko, ahal den neurrian.

4. *Prohibición de represalias*

La Comisión Técnica de Acoso podrá proponer las medidas necesarias para hacer efectiva la prohibición de represalias contra las personas que hayan efectuado la denuncia, comparecido como testigos o hayan participado, de una u otra forma en la investigación de los hechos, siempre que se haya actuado de buena fe.

**Artículo 13.** Actuación de los órganos competentes de la Universidad de Deusto

A la vista del informe de conclusiones recibido de la Comisión Técnica de Acoso, el Vicerrector competente en materia de estudiantes tomará alguna de las siguientes decisiones:

a) Presencia de acoso: Declarar la existencia de acoso. Se adoptarán las acciones y medidas correctoras, preventivas y disciplinarias de conformidad con el art. 14.
b) Ausencia de acoso: Declarar la inexistencia de acoso y el archivo del expediente, sin perjuicio de la aplicación de las medidas de mejora que se consideren oportunas.
c) Conductas inapropiadas y situaciones de conflicto: Si la Comisión Técnica de Acoso, en el informe de conclusiones, no considera probada la existencia de una situación de acoso, pero sí la existencia de «conductas inadecuadas», se procederá a aplicar las medidas preventivas, correctoras o disciplinarias que aconseje el informe de valoración. El procedimiento puede dar lugar a la planificación de medidas preventivas para llevar a cabo mejoras organizativas, que disminuyan o controlen la exposición a factores de riesgo.

La resolución se notificará a los interesados con indicación de los recursos que, en su caso, puedan interponerse contra ella.

**Artículo 14.** Medidas correctoras, preventivas y disciplinarias

Si se ha declarado la existencia de acoso, se adoptarán las acciones y medidas correctoras, preventivas y disciplinarias que se consideren oportunas.

Adicionalmente, se pondrán los hechos que sean constitutivos de infracción penal en conocimiento de las autoridades competentes, si no se ha hecho con anterioridad.

**Artículo 15.** Seguimiento y control

La Comisión Técnica de Acoso colaborará con el Vicerrector en la realización de un seguimiento periódico de la ejecución y cumplimiento de las medidas propuestas, por si fuera necesaria la adopción de otras.

Cuando se trate de situaciones de acoso sexual, acoso por razón de sexo y acoso discriminatorio, el seguimiento y control de las medidas se hará en coordinación con la Comisión competente en materia de igualdad.

## CAPÍTULO III

## Comisión Técnica de Acoso (estudiantes)

**Artículo 16.** Naturaleza

Es un órgano colegiado, paritario, neutral y de perfil técnico, especializado en la prevención, intervención, capacidad de indagación y propuesta de soluciones, así como seguimiento, de las reclamaciones por acoso que se produzcan en el ámbito del presente protocolo. No tiene competencias disciplinarias.

4. *Errepresalien debekua*

Jazarpen Batzorde Teknikoak behar diren neurriak proposatu ditzake salaketa egin, lekukotza eman edo ikerketan era batera edo bestera parte hartu dutenen aurkako errepresalien debekua bete dadin, onustez jokatu badute.

**13. artikulua.** Deustuko Unibertsitateko organo eskudunen jarduketa

Jazarpen Batzorde Teknikoak emandako ondorioen txostena ikusita, ikasleen gaietan eskumena duen errektoreordeak erabaki hauetako bat hartuko du:

a) Jazarpena egon bada: Jazarpena egon dela deklaratu. Egoera zuzentzeko, prebenitzeko eta zigortzeko neurriak hartuko dira, 14. artikuluaren arabera.
b) Jazarpenik egon ez bada: Jazarpenik ez dela egon deklaratu eta espedientea artxibatu. Hala ere, egoera hobetzeko neurriak har litezke.
c) Jokabide desegokia eta gatazka egoera egon bada: Jazarpen Batzorde Teknikoak, ondorioen txostenean, jazarpen egoerarik ez baina jokabide desegokiak egon direla frogatutzat ematen badu, balorazio txostenak proposatzen dituen neurri prebentibo, zuzentzaile edo diziplinazkoak aplikatuko dira. Prozeduraren ondorioz, prebentziozko neurriak planifikatu litezke, arrisku faktoreak gutxituko dituzten hobekuntzak egiteko.

Interesdunei ebazpenaren berri emango zaie eta haren kontra zer errekurtso jar dezaketen jakinaraziko zaie.

**14. artikulua.** Neurri zuzentzaile, prebentibo eta diziplinazkoak

Jazarpena egon dela edo dagoela deklaratu bada, egoki ikusten diren ekintza eta neurri zuzentzaile, prebentibo eta diziplinazkoak hartuko dira.

Horrez gain, egitateren bat arau-hauste penala bada, agintari eskudunei horren berri emango zaie, lehenago egin ez bada.

**15. artikulua.** Jarraipena eta kontrola

Jazarpen Batzorde Teknikoak, aldian-aldian, proposatutako neurrien jarraipena egiten lagunduko dio errektoreordeari, betetzen diren egiaztatzeko eta, beharrezkoa izanez gero, beste neurri batzuk hartzeko.

Sexu jazarpena, sexuagatiko jazarpena eta bereizkeriazko jazarpena gertatuz gero, neurrien jarraipena eta kontrola berdintasun gaietan eskumena duen batzordearekin koordinaturik egingo dira.

## III. KAPITULUA

## Jazarpen Batzorde Teknikoa (Ikasleentzakoa)

**16. artikulua.** Izaera

Jazarpen Batzorde Teknikoa kide anitzeko organoa da, paritarioa, neutrala eta teknikoa, jazarpena prebenitzeko eta protokolo honen esparruan gertatzen diren jazarpenagatiko erreklamazioak ikertzeko, halako egoeretan esku hartzeko, irtenbideak proposatzeko eta jarraipena egiteko espezializatua. Ez dauka diziplina eskumenik.

**Artículo 17.** Composición

La Comisión Técnica de Acoso (estudiantes) estará formada por tres miembros representantes del PDI, PI y PAS nombrados por el Rector de la Universidad de Deusto, de los cuales uno actuará como Presidente, con voto dirimente en caso necesario.

Si estuviera involucrado un colegial del Colegio Mayor, el Director del Colegio Mayor, o en quien él delegue, se integrará en la Comisión con voz, pero sin voto.

Si estuviera involucrado un estudiante de un centro adscrito a la universidad, la dirección del Centro, o en quien se delegue, se integrará en la Comisión con voz, pero sin voto.

Se nombrarán titulares y suplentes.

Por aplicación de la Disposición Adicional Primera de la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres, la composición de la Comisión, incluidos titulares y suplentes, se procurará que esté conformada de forma equilibrada por mujeres y hombres, considerándose que existe representación equilibrada cuando los dos sexos estén representados al menos por el 40 por ciento.

**Artículo 18.** Régimen de abstención y recusación

La abstención y recusación podrá tener lugar en cualquier momento del procedimiento.

La abstención no implicará, necesariamente, la invalidez de los actos en que hayan intervenido. La no abstención, en los casos en que proceda, dará lugar a responsabilidades disciplinarias.

La recusación se planteará por escrito ante la Comisión Técnica de Acoso en el que se expresará la causa o causas en que se funda. En el día siguiente, la persona recusada manifestará si concurre a su juicio la causa alegada. Si niega la causa de recusación, la Comisión Técnica, por mayoría resolverá en el plazo máximo de dos días, previos los informes y comprobaciones que considere oportunos.

Cuando una de las personas integrantes de la Comisión Técnica de Acoso quede excluida de intervención, por causa de abstención o recusación, se procederá a su sustitución por el suplente correspondiente. El nombramiento de esta persona debe respetar, en todo caso, el principio de composición de la Comisión Técnica, así como la exigencia de formación.

Contra las resoluciones adoptadas en esta materia no cabrá recurso, sin perjuicio de la posibilidad de alegar la recusación al interponer el recurso que proceda contra el acto que ponga fin al procedimiento.

Se aplica por analogía los motivos de abstención y recusación contenida en los artículos 28 y 29 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y procedimiento administrativo común, en los términos que sea procedente y que se enumeran a continuación:

a) Tener interés personal en el asunto de que se trate o en otro en cuya resolución pudiera influir la de aquél; ser administrador de sociedad o entidad interesada, o tener cuestión litigiosa pendiente con algún interesado.

b) Tener parentesco de consanguinidad, dentro del cuarto grado o de afinidad, dentro del segundo, con cualquiera de los interesados, con los administradores de entidades o sociedades interesadas y también con los asesores, representantes legales o mandatarios que intervengan en el procedimiento, así como compartir despacho profesional

**17. artikulua.** Osaera

Jazarpen Batzorde Teknikoa (ikasleentzakoa) irakasle-ikertzaileen, ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen hiru ordezkarik osatuko dute. Deustuko Unibertsitateko errektoreak izendatuko ditu, eta haietako bat batzordeburua izango da eta, beharrezkoa izanez gero, boto erabakitzailea izango du.

Ikastetxe Nagusiko egoiliar bat tartean badago, Ikastetxe Nagusiko zuzendaria ere, edo haren eskuordea, izango da Batzordean. Hitza izango du, baina botorik ez.

Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolako (BAM) ikasle bat tartean badago, ikastetxeko zuzendaria ere, edo haren eskuordea, izango da Batzordean. Hitza izango du baina botorik ez.

Titularrak eta ordezkoak izendatuko dira.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarria aplikatuta, Batzordea, titularrak eta ordezkoak barne, emakumeek eta gizonek modu orekatuan osatzeko ahalegina egingo da, eta ordezkaritza orekatua dagoela ulertuko da bi sexuek gutxienez ehuneko 40ko ordezkaritza badute.

**18. artikulua.** Abstentzioa eta errekusazioa

Abstenitzea edo prozeduran parte ez hartzea eta errefusatzea prozeduraren edozein momentutan gertatu ahal izango dira.

Prozeduran parte ez hartzeak ez dakar, ezinbestean, prozedurako egintzak baliogabetzea. Ez abstenitzeak, abstenitu beharreko kasuetan, diziplinazko erantzukizunak ekarriko ditu.

Errekusazioa idatziz eskatuko zaio Jazarpen Batzorde Teknikoari eta idazkian horretarako arrazoiak azalduko dira. Hurrengo egunean, errekusatutako pertsonak alegatutako arrazoiarekin ados dagoen ala ez adieraziko du. Errekusatzeko arrazoia ukatzen badu, Batzorde Teknikoak ebatziko du, gehiengoz, beharrezko deritzen informazioak bilduta eta egiaztapenak eginda, bi eguneko epean gehienez.

Jazarpen Batzorde Teknikoko kide bat, abstentzioa edo errekusazioa dela eta, esku hartu ezinik geratzen bada, dagokion ordezkoak ordezkatuko du. Pertsona horren izendapenak Batzorde Teknikoaren osaeraren printzipioa eta prestakuntzaren beharra errespetatu behar ditu.

Ezin izango da errekurtsorik aurkeztu ebazpenen aurka. Dena dela, prozedura bukatzen duen egintzaren aurkako errekurtsoa jarri ahal izango da eta, orduan, errekusazioa alegatzeko aukera egongo da.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 28. eta 29. artikuluetan abstenitzeko eta errekusatzeko ezarritako arrazoiak aplikatuko dira analogiaz; honako hauek, hain zuzen ere:

a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; baltzu edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko ezkontza-ahaidetasuna izatea interesdunetako edozeinekin, erakunde edo baltzu interesdunen bateko administratzaileekin, edo prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin, edo horien bulego berekoa izatea edo horiekin elkar-

o estar asociado con éstos para el asesoramiento, la representación o el mandato.
c) Tener amistad íntima o enemistad manifiesta con alguna de las personas mencionadas en el apartado anterior.
d) Haber tenido intervención como perito o como testigo en el procedimiento de que se trate.
e) Tener relación de servicio con persona natural o jurídica interesada directamente en el asunto, o haberle prestado en los dos últimos años servicios profesionales de cualquier tipo y en cualquier circunstancia o lugar.

**Artículo 19.** Funciones

La Comisión Técnica de Acoso asumirá las siguientes funciones, para cuyo cumplimiento deberá estar dotada de los recursos y competencias necesarias:

a) Recibir las denuncias que se presenten por acoso.
b) Investigar los hechos que han dado lugar a la denuncia, practicando pruebas admitidas en Derecho y recabando la documentación e información necesaria para conformar el diagnóstico de la situación, de los órganos, servicios universitarios, personal y en general todos los miembros de la comunidad universitaria.
c) Elaborar el informe de conclusiones sobre el supuesto acoso investigado y
d) Remitir al Vicerrector competente el Informe de Conclusiones.
e) Colaborar con el desarrollo e implementación de las propuestas de medidas y las recomendaciones dirigidas a solucionar el problema denunciado y a colaborar en la prevención, información, detección, protección, sensibilización y formación, ante situaciones de riesgo relacionadas con acoso, promoviendo la igualdad de oportunidades y la no discriminación entre hombres y mujeres en la Universidad de Deusto.
f) Suministrar información oportuna y colaborar en la elaboración de materiales informativos, así como de otros instrumentos y recursos para la prevención del acoso.
g) Elaborar una memoria anual de actuaciones, respetando el principio de confidencialidad que rige el procedimiento, dando traslado del mismo a las autoridades y órganos que se consideren competentes.

**Artículo 20.** Reglas de funcionamiento interno

1. *Funciones*

1. Serán funciones de Presidente las siguientes:

a) Ostentar la representación de la Comisión Técnica de Acoso.
b) Firmar el informe de conclusiones y visar las actas, acuerdos y demás documentación que generen las actuaciones de la Comisión Técnica.
c) Ejecutar la práctica de pruebas correspondientes al procedimiento, así como las medidas necesarias para la debida tramitación del procedimiento.
d) Proveer a los miembros de la Comisión Técnica de la documentación e información necesaria para su correcto funcionamiento.
e) Coordinar las actuaciones de la Comisión Técnica y decidir las cuestiones de procedimiento que se planteen, respondiendo a las dudas presentadas.
f) Toda otra función inherente a su condición y las que le fueran encomendadas por la Comisión Técnica.

2. Serán funciones del Secretario las siguientes:

a) Convocar, en su caso, por orden del Presidente de la Comisión Técnica de Acoso.

tuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzan.
c) Aurreko idatz-zatian aipaturiko lagunetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.
d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko moduan aritzea.
e) Gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lanzerbitzuak eskaini izana.

**19. artikulua.** Eginkizunak

Jazarpen Batzorde Teknikoak ondoren aipatuko diren eginkizunak izango ditu eta behar diren baliabidez eta eskumenez hornituta egon beharko du eginkizun horiek betetzeko:

a) Aurkezten diren jazarpen salaketak jasotzea.
b) Salaketa eragin duten gertakariak ikertzea eta, horretarako, Zuzenbideak onartzen dituen probak egitea eta egoeraren diagnostikoa osatzeko beharrezkoa den dokumentazioa eta informazioa biltzea unibertsitateko organo eta zerbitzuetatik eta, oro har, unibertsitateko elkarteko kideengandik.
c) Ikertutako ustezko jazarpenari buruzko ondorioen txostena egitea eta
d) Ondorioen txostena dagokion errektoreordeari igortzea.
e) Salatutako arazoa konpontzeko proposatutako neurriak eta emandako gomendioak aurrera eramaten laguntzea eta jazarpena gertatzeko arriskua dakarten egoerak prebenitzeko, informatzeko, antzemateko, babesteko eta haien gainean sentiberatzeko eta prestatzeko neurrietan laguntzea, Deustuko Unibertsitatean gizonen eta emakumeen aukera berdintasuna eta bereizkeriarik eza sustatzeko.
f) Jazarpenaren prebentziorako material informatiboak eta bestelako tresna eta baliabideak egiteko informazioa eta laguntza ematea.
g) Urteko jarduketen memoria egitea, prozeduran arauzkoa den konfidentzialtasun printzipioari eutsiz, eta agintari eta organo eskudunei igortzea.

**20. artikulua.** Barne jarduerako arauak

1. *Eginkizunak*

1. Batzordeburuak eginkizun hauek izango ditu:

a) Jazarpen Batzorde Teknikoaren ordezkaria izatea.
b) Batzorde Teknikoak egindako ondorioen txostena sinatzea eta aktak, erabakiak eta gainerako dokumentuak ontzat ematea.
c) Prozedurako probak egitea, baita prozedura izapidetzeko behar diren neurriak ere.
d) Batzorde Teknikoari lana behar bezala egiteko behar duen dokumentazio eta informazioa ematea.
e) Batzorde Teknikoaren jarduketak koordinatzea eta prozedura dela eta sortzen diren zalantzei erantzutea.
f) Batzordeburu izateak dakartzan beste eginkizun guztiak eta Batzorde Teknikoak bere esku utzitakoak.

2. Idazkariak eginkizun hauek izango ditu:

a) Deiak egitea, Jazarpen Batzorde Teknikoko buruak aginduta.

b) Expedir actas, certificaciones y acuerdos.
c) Tramitar y custodiar la documentación correspondiente que genere el procedimiento con respeto a la debida confidencialidad y respeto a la intimidad de las personas involucradas.
d) Levantar acta de las reuniones.
e) Velar por la actualización de la información en la página web.
f) Toda otra función inherente a su condición y las que le fueran encomendadas por la Comisión Técnica.

2. *Convocatoria y orden del día*

Corresponde al Presidente convocar la Comisión Técnica, o al Secretario por orden de éste, acompañando orden del día y acta de la reunión anterior, adjuntando la documentación necesaria, todo ello con el debido respeto a la confidencialidad que rigen sus actuaciones.

3. *Adopción de decisiones*

Para la adopción de decisiones será necesaria la mayoría simple de los miembros de la Comisión Técnica, salvo la decisión de inadmisión a trámite de la denuncia que requiere unanimidad.

4. *Actas*

Se levantará acta de cada reunión en la que quedará constancia de los acuerdos adoptados.

5. *Dirección electrónica de contacto*

Los escritos y notificaciones dirigidas de modo electrónico a la Comisión Técnica se remitirán al Presidente de la Comisión Técnica a la dirección de correo electrónico que se establezca al afecto.

### **Artículo 21.** Deber de secreto y discreción profesional

Los miembros de la Comisión Técnica deberán guardar secreto profesional en todos los asuntos sometidos a su conocimiento.

## CAPÍTULO IV

## Información, difusión y sensibilización

### **Artículo 22.** Difusión del protocolo

a) La Universidad de Deusto divulgará el presente protocolo, para su conocimiento por todos los miembros de la comunidad universitaria, con el objetivo de que su difusión sea lo más amplia posible.
b) Este protocolo, junto con el modelo de denuncia, estará disponible en un apartado de la extranet de estudiantes de la Universidad de Deusto así como en el que corresponda del Colegio Mayor.
c) Se habilitará un espacio en la extranet de la Universidad de Deusto, así como en la página web del Colegio Mayor para la actividad de la Comisión Técnica de Acoso a estudiantes y se publicará la lista de las personas integrantes, titulares y suplentes, de la Comisión Técnica en la página web, así como en el BOUD.
d) Se organizarán sesiones divulgativas y podrán elaborarse carteles informativos.
e) Se elaborará una guía clara y sencilla sobre las conductas de acoso y el procedimiento a seguir por la Universidad de Deusto en caso de denuncia, según lo previsto en este protocolo.
f) Se informará de la existencia de este procedimiento al alumnado desde su incorporación a la Universidad.

b) Aktak, ziurtagiriak eta erabakien agiriak egitea.
c) Prozeduran sortutako dokumentazioa izapidetzea eta zaintzea, behar den konfidentzialtasuna gordez eta tartean diren pertsonen intimitatea errespetatuz.
d) Bileren akta egitea.
e) Webguneko informazioa eguneratuta egon dadin arduratzea.
f) Idazkari izateak dakartzan beste eginkizun guztiak eta Batzorde Teknikoak bere esku utzitakoak.

2. *Deia eta gai zerrenda*

Batzordeburuari dagokio Batzorde Teknikoa deitzea, edo idazkariari hark aginduta. Deiak gai zerrenda izango du eta aurreko bileraren akta eta beharrezko dokumentazioa erantsiko zaizkio, betiere konfidentzialtasuna errespetatzen dela.

3. *Erabakiak hartzea*

Erabakiak hartzeko Batzorde Teknikoko kideen gehiengo soila beharko da, non eta erabakia ez den salaketa izapidetzea ez onartzea; erabaki hori aho batez hartu beharko da.

4. *Aktak*

Bilera bakoitzaren akta egingo da, hartutako erabakiak jasota gera daitezen.

5. *Harremanetarako helbide elektronikoa*

Batzorde Teknikoari bide elektronikotik bidalitako idazkiak batzordeburuari zuzenduko zaizkio horretarako sortuko den helbide elektronikora.

### **21. artikulua.** Sekretu eta zuhurtzia profesionala gorde beharra

Batzorde Teknikoko kideek euren ezaguerara iristen diren gai guztien sekretu profesionala gorde beharko dute.

## IV. KAPITULUA

## Informazioa, zabalkundea eta sentsibilizazioa

### **22. artikulua.** Protokoloaren zabalkundea

a) Deustuko Unibertsitateak protokolo honen zabalkundea egingo du, unibertsitateko elkarteko kide guztiak jakinaren gainean egon daitezen.
b) Protokolo hau eta salaketa egiteko eredua Deustuko Unibertsitateko ikasleen estraneteko atal batean eta Ikastetxe Nagusiko webaren atal batean egongo dira eskuragarri.
c) Deustuko Unibertsitateko estranetean eta Ikastetxe Nagusiko webean, gune bat prestatuko da Jazarpen Batzorde Teknikoaren jarduerarako, eta Batzorde Teknikoko kideen (titular eta ordezkoen) zerrenda argitaratuko da webean eta DUAOn.
d) Dibulgazio saioak antolatuko dira eta informatzeko kartelak egin ahal izango dira.
e) Jazarpenezko jokabideei buruzko eta jazarpena salatzekotan jarraitu beharreko prozedurari buruzko gida argi bat egingo da, protokolo honetan oinarritua.
f) Ikasleei prozedura honen berri emango zaie Unibertsitatean hasten direnean.

**Artículo 23.** Información y sensibilización

a) Se organizarán campañas y acciones informativas a fin de sensibilizar sobre las situaciones de acoso en las que se dará a conocer la existencia del procedimiento previsto en el presente protocolo; y se elaborarán documentos divulgativos de información sobre las acciones de prevención que se lleven a cabo.
b) Las acciones de información y sensibilización que correspondan a situaciones de acoso sexual, por razón de sexo y discriminatorio se llevarán a cabo conjuntamente con la Comisión competente en materia de igualdad.
c) La Universidad establecerá sistemas (buzón, correo electrónico o teléfono) donde se puedan realizar consultas y recibir asesoramiento informativo sobre acoso de forma anónima.
d) La Universidad contará con el asesoramiento tanto del Servicio de Orientación Universitaria como de Deusto Psych para organización de las distintas actividades de información, difusión y sensibilización del protocolo.

**23. artikulua.** Informazioa eta sentsibilizazioa

a) Jazarpen egoeren inguruan sentsibilizatzeko informazio kanpainak eta ekintzak antolatuko dira eta bertan protokolo honetan aurreikusitako prozeduraren berri emango da). Horrez gain, zabalkundeko dokumentuak sortuko dira, prebentzio ekintzen informazioa emateko.
b) Sexu, sexuagatiko eta bereizkeriazko jazarpenari buruzko informazio eta sentsibilizazio ekintzak berdintasun gaietan eskumena duen batzordearekin batera egingo dira.
c) Unibertsitateak jazarpenari buruzko kontsulta anonimoak egiteko eta aholku informatiboa jasotzeko bitartekoak (postontzia, posta elektronikoa edo telefonoa) jarriko ditu.
d) Unibertsitateak Unibertsitateko Orientazio Zerbitzuaren eta Deusto Psychen aholkua jasoko du protokoloan ezarritako informazio, zabalkunde eta sentsibilizazio jarduerak antolatzeko.

## CAPÍTULO V

## Medidas de formación

**Artículo 24.** Formación en materia de acoso

1. *Plan de formación*

Se incluirá todos los años, en el Plan de Formación de la Universidad, una oferta formativa de seminarios, jornadas o cursos sobre prevención y sobre actuación en caso de acoso. Los programas de formación y las acciones formativas irán dirigidos tanto al personal UD, especialmente a quienes ostentan responsabilidades jerárquicas a nivel administrativo o académico, personal tutor o que preste servicios de atención directa y orientación psicológica, como a la representación del alumnado y, cuando se estime necesario, a todo el alumnado.

2. *Formación específica para miembros de la Comisión Técnica*

La Universidad de Deusto se compromete a dotar de la formación y actualización específica necesarias al personal que integra la Comisión Técnica, en materia de riesgos psicosociales, de acoso, y también en materia de igualdad y no discriminación.

3. *Intervención de la Comisión competente en materia de igualdad*

La estrategia de formación a través de programas y las acciones de formación que correspondan a situaciones de acoso sexual, por razón de sexo y discriminatorio se llevará a cabo, conjuntamente, con la Comisión competente en materia de igualdad.

## V. KAPITULUA

## Prestakuntzako neurriak

**24. artikulua.** Jazarpenari buruzko prestakuntza

1. *Prestakuntza Plana*

Deustuko Unibertsitateko prestakuntza planean urtero sartuko dira jazarpena prebenitzeko eta jazarpen egoeretan egin beharrekoaren gaineko mintegi, jardunaldi edo ikastaroak. Prestakuntzako programak eta ekintzak DUko enpleatuentzat, batez ere arlo administratiboan edo akademikoan erantzukizun hierarkikoa dutenentzat, tutoreentzat eta arreta zuzena eta orientazio psikologikoa ematen dutenentzat eta ikasleen ordezkarientzat izango dira eta, beharrezko iritziz gero, ikasle guztientzat.

2. *Batzorde Teknikoko kideentzako berariazko prestakuntza*

Deustuko Unibertsitateak konpromisoa hartzen du Batzorde Teknikoko kideei prestakuntza eguneratua emateko arrisku psikosozial, jazarpen, berdintasun eta bereizkeria gaietan.

3. *Berdintasun gaietan eskumena duen batzordearen esku hartzea*

Sexu, sexuagatiko eta bereizkeriazko jazarpenari buruzko prestakuntza programak eta ekintzak berdintasun gaietan eskumena duen batzordearekin batera antolatuko dira.

## CAPÍTULO VI

## Evaluación y prevención

**Artículo 25.** Estudios de evaluación

La Comisión Técnica, en su informe anual, facilitará información sobre las situaciones de acoso que han llegado a su conocimiento, con respeto al deber de confidencialidad al que está sujeto, incluyendo posibles recomendaciones, para prevenir situaciones de acoso.

La Universidad de Deusto se compromete a realizar estudios para detectar y conocer la incidencia de las situaciones o conductas de acoso, identificando los factores e impacto en la salud de las personas y en la organización universitaria, en los que participarán los Comité de Seguridad y Salud de la Universidad de Deusto (campus de Bilbao y campus de Donostia / San Sebastián), las Comisiones Técnicas de Acoso

## VI. KAPITULUA

## Ebaluazioa eta prebentzioa

**25. artikulua.** Ebaluazio azterketak

Batzorde Teknikoak, urteko txostenean, bere ezaguerara iritsi diren jazarpen egoerei buruzko informazioa emango du, beharrezko konfidentzialtasuna gordez. Gainera, jazarpen egoerak prebenitzeko gomendioak ere emango ditu.

Deustuko Unibertsitateak konpromisoa hartzen du jazarpenezko egoerak edo jokabideak detektatzeko eta halakoak gertatzeko faktoreak eta pertsonen osasunean eta erakundean duten eragina aztertzeko. Azterketa horietan Deustuko Unibertsitateko Segurtasun eta Osasun Batzordeek (Bilboko campusekoak eta Donostiako campusekoak), DUko Jazarpen Batzorde Teknikoek, Bertoko Prebentzio Zerbitzuak eta ber-

existentes en la UD, el Servicio de Prevención Propio y la Comisión competente en materia de igualdad.

**Artículo 26.** Prevención

La Universidad de Deusto incluirá en los planes de evaluación de riesgos el acoso en todas las modalidades previstas en el presente protocolo.

En el plazo de dos años se elaborará un código de buenas prácticas en esta materia.

DISPOSICIONES ADICIONALES

**Primera.** Revisión del protocolo

El presente Protocolo se someterá a revisión cada tres años a contar desde la entrada en vigor del mismo, y siempre que lo solicite, bien la Comisión Técnica de Acoso regulada en el presente Protocolo, o bien la Comisión competente en materia de igualdad de la Universidad de Deusto.

**Segunda.** Terminología

Todas las referencias a cargos, puestos o personas para los que en esta orden se utiliza la forma de masculino genérico deben entenderse aplicables, indistintamente, a hombres y mujeres.

DISPOSICIÓN FINAL

**Única.** Vigencia

El protocolo será aplicable desde su entrada en vigor, al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de la Universidad de Deusto, y tendrá una duración indefinida.

ANEXO I

Solicitud de inicio de protocolo de acoso (estudiantes)

**Datos de la persona afectada por la situación de acoso:**

| | |
|---|---|
| Nombre y apellidos | |
| NIF-NIE | |
| Centro al que pertenece (Facultad, Colegio Mayor...) | |
| Vinculación (Titulación, Curso, Programa de Movilidad...) | |
| Campus/Sede | |
| Teléfono de contacto | |
| E-mail de contacto | |
| Si quien presenta el presente escrito no es la persona afectada, indicar los siguientes datos: | |
| Nombre y apellidos: | |
| NIF-NIE: | |
| Vinculación con la Universidad o con la persona afectada: | |

dintasun gaietan eskumena duen batzordeak hartuko dute parte.

**26. artikulua.** Prebentzioa

Deustuko Unibertsitateak arriskuen ebaluaziorako planetan sartuko du jazarpena, protokolo honetan aurreikusitako mota guztietakoa.

Hemendik bi urtera gai honetako jardunbide egokien kodea egingo da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

**Bakarra.** Protokoloaren berrikusketa

Protokolo hau hiru urtetik hiru urtera berrikusiko da indarrean sartzen denetik, baita protokolo honetan araututako Jazarpen Batzorde Teknikoak edo Deustuko Unibertsitatean berdintasun gaietan eskumena duen batzordeak eskatuz gero ere.

AZKEN XEDAPENA

**Bakarra.** Indarraldia

Protokoloa indarrean sartzen denean izango da aplikagarria, hots, Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, eta iraupen mugagabea izango du.

I. ERANSKINA

Ikasleen arteko jazarpenerako protokoloa hasteko eskabidea

**Jazarpen egoera jasan duen pertsonaren datuak:**

| | |
|---|---|
| Izen-abizenak | |
| NAN-ANZ | |
| Ikastegia (fakultatea, Ikastetxe Nagusia…) | |
| Lotura (titulazioa, ikastaroa, mugikortasun programa…) | |
| Campusa/Egoitza | |
| Harremanetarako telefonoa | |
| Harremanetarako posta elektronikoa | |
| Jazarpena jasandako pertsona ez bazara, eman datu hauek: | |
| Izen-abizenak: | |
| NAN-ANZ: | |
| Unibertsitatearekiko edo jazarpena jasandako pertsonarekiko lotura: | |

| | |
|---|---|
| Breve descripción de los hechos | |
| Relación de Documentación Anexa: SÍ /NO<br><br>(En caso afirmativo, especificar qué se aporta) | |

**SOLICITUD: Por el presente escrito solicito el inicio del Protocolo de actuación frente al acoso**

**Firma:**

**Lugar y Fecha:**

**INSTRUCCIONES**

Podrá dirigirse este escrito personalmente, por vía postal a las direcciones indicadas o por vía electrónica, a cualquiera de las dos instancias siguientes (elija una u otra dirección, el procedimiento a seguir es el mismo):

PRESIDENCIA DE LA COMISIÓN TÉCNICA DE ACOSO (Estudiantes)

a) Dirección Postal:
   Avda. Universidades 24, 48007. BILBAO.
   O bien:
   Mundaiz 50, 20012 Donostia-San Sebastián.
b) Dirección electrónica: (la que se establezca al efecto).

Para cualquier duda, diríjase a las direcciones electrónicas indicadas en el presente escrito.

**SE ENTREGARÁ RESGUARDO.**

*En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, la Universidad de Deusto le informa que los datos que se solicitan en el presente formulario se incorporarán a ficheros automatizados cuyo responsable y titular es la Universidad de Deusto.*

*Una vez incluidos sus datos en los ficheros, tendrá la facultad de ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición al tratamiento de sus datos, mediante comunicación escrita que puede dirigir a la cuenta de correo electrónico «privacidad@deusto.es».*

| | |
|---|---|
| Gertatutakoaren deskribapen laburra | |
| Dokumentuak:<br><br>BAI/EZ<br><br>(Dokumenturik erantsiko baduzu, zehaztu zein) | |

**ESKAERA: Idazki honen bidez jazarpenaren kontrako protokoloa hasteko eskatzen dut.**

**Sinadura:**

**Lekua eta eguna:**

**JARRAIBIDEAK**

Idazki hau eskura, posta arruntez edo posta elektronikoz helaraz daiteke behean zehaztutako helbideetako edozeinetara (prozedura berdina da denetan).

JAZARPEN BATZORDE TEKNIKOKO BATZORDEBURUA (ikasleentzakoa)

a) Posta helbidea:
   Unibertsitate etorbidea 24, 48007 Bilbao
   edo
   Mundaiz 50, 20012 Donostia/San Sebastián
b) Posta-helbide elektronikoa: (horretarako sortzen dena)

Zalantzarik izanez gero, jo ezazu idazki honetan ageri diren helbide elektronikoetara.

**FROGAGIRIA EMANGO DA.**

*Datu Pertsonalak babesteko eta Eskubide Digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Deustuko Unibertsitateak jakinarazten dizu formulario honetan eskatzen diren datuak Deustuko Unibertsitatearen ardurapeko eta jabetzapeko fitxategi automatizatuetan sartuko direla.*

*Datuak fitxategietan sartutakoan, eskubidea izango duzu datu horiek ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien erabileraren aurka egiteko. Horretarako, eskabide idatzia bidali beharko duzu posta elektronikoko privacidad@deusto.es helbidera.*

## *Orden del Rector 9/2022, de 8 de junio, por la que se modifica la Orden del Rector 12/2021, de 4 de octubre, sobre Remodelación de los Departamentos de la Universidad de Deusto*

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Dando continuidad a la reorganización departamental y, previo informe del Consejo de Dirección, DISPONGO:

## *Errektorearen 9/2022 Agindua, ekainaren 8koa, Deustuko Unibertsitateko sailak birmoldatu zituen Errektorearen urriaren 4ko 12/2021 Agindua aldatzen duena*

ZIOEN AZALPENA

Sailen berrantolaketari jarraipena emanez, eta Zuzendaritza Kontseiluak txostena egin ondoren, honako hau XEDATU DUT: